




SAHARARAKO BIDEAN ?

Hartuizu honako testu hau irakurtzeko denbora. Hemen dituzu Saharara modu arduratsuan bidaiatzeko jarrera eta ekintza apal batzuk, bertako ondare natural eta kulturala errespetatuz.

Zure jokabide eta portaera arduratsuen bitartez, ondare hauskor honen mantenuan parte hartuko duzu.

ZERGATIK INFORMATU ONDARE SAHARIARRAREN INGURUAN ?

> Nahigabe arriskuan jar zenezakeelako ingurune hauskor hau, eta, era berean, gure ondorengoei edertasun hori gozatzea galaraziko zeniekeelako.

> Saharan, labar-arteak eta gainazaleko historiaurreko aztarnategiak direlako ditugun artxibo bakarrak, ulertu ahal izateko Afrikako iparraldeko lehenengo biztanleen ingurugiroa, eguneroko bizitza eta imajinarioa. Ondorioz, halabeharrezkoa dugu horiek babestea, ikertzaileek afrikar eta mediterraneen arbasoen inguruko ikerketekin jarraitzerik izan dezaten.

SAHARAKO ONDARE KULTURALAREN BABESERAKO JARDUNBIDE ERRAZ BATZUK

> Ez itzazu labar-margo eta grabatuak ukitu. Zure eskuak gainetik pasatuz edota margoak hezetuz, milaka urtean lozorroan egondako mikroorganismoak esnatuko dituzu. Mikroorganismo horiek gainazala sulfatatzen zein kaltzifikatzen dute, eta, ondorioz, margoak ezabatzen dituzte. Jendeak, ikertzaileak barne, Tassili n'Ájjerreko (Argelia) horma aipaindurik ederrenak hezetu zuen, margook nabarmendu edota argazkiak atera nahian ; horren erruz, ehundaka margolan ahuldu edota desagerrarazi dituzte.

> Saihestu aurkitutako gainazaleko objektu arkeologikorik hartzen edota mugitzen (gezi puntak, aizkorak, errotarriak, hilobiak,...): pieza horien azterketa adierazgarria izango da soilik bere testuinguru natural eta kulturalean eginez gero. Dagozkien herrialdeen arteko akordioa bermatzen duten arkeologia misio ofizialek bakarrik daukate baimena objektuen bilketa egiteko, ondorengo laborategi-ikerketarako.

> Pieza arkeologikorik edota geologikorik erosteko aukera eskaintzen bazaizu, saia zaitez saltzaileari ulertarazten bere ondare-iturria agortzen ari dela, baita bere seme-alabena ere. Zer gertatuko litzateke Parisera doan turista bakoitzak Notre Dame edo Eiffel Dorrreraen zati batekin itzuliko balitz bere etxera ?

ONDARE NATURALAK BABESTEKO JARDUNBIDE ERRAZ BATZUK

> Bidaia baino lehen, utz itzazu etxean zure ekipamenduko enbalaje guztiak (plastikozko poltsak, bilgarriak). Hori egitea ahaztu bazaizu, helmugako aireportuko zakarrontziak aprobetxatu. Eraman saku hermetikoak.

> Ez ezazu vivac-ik egin edozein tokitan. Kontuan izan gida eta gidari adituen jarraibideak. Ez ibili parke nazionaletan, aldezturik bertoko agintaritzaren baimenik eduki gabe. Ez zaitez markatutako bide eta ibilbideetatik kanpo abiatu, mehatxatutako inguruneak zapal ditzakezu.

> Egurra oso ezohikoa da Sahara aldean, eta landare-birsortzea geldoa baino, ematen ez dela esan dezakegu. Aukeran, erabili gasa edo laguntzaile dituzun pertsonak aurkitzen dakiten egurra. Utzi beraien esku baliabide horren kudeaketa, saharianren eguneroko bizitzan hain ezinbestekoa baita baliabide hori.

> Ez itzaazu landareak errotik atera, ura gordetzen dute eta gure planetako espezierik mehatxatuenen artean daude.

> Ur edangarria oso eskasa da eta, beraz, inolako ezbairik gabe, neurriz erabili behar da eta inolaz ere ez kutsatu. Saharar herrien biziraupenaren

oinarri da. Turista euopear baten hileko ur-kontsumoa Saharako biztanle baten urteko ur-kontsumoa bestekoa da. Edateko uraz aparte (biziraupenerako funtsezkoa), zure eguneroko behar higienikoak muturreraino murriztu beharra daukazu eta horiek asetzeko ontzi txiki bat (palankana) erabili beharko duzu. Arropa bera ere bidean diitugun hirietan garbituko dugu, inondik inora ez basamortuan bertan!

> Saihestu edozein lekutan kaka egiten, batez ere ur-putzuetatik gertu! Egizu 30 cm-ko zulo txikia arean eta, ondoren, estali ezazu.

> Vivac lekua utzi aurretik, ziurtatu ingurua bere horretan utzi duzula, garbi. Batu eta eraman zure zabor guztia, organikoa barne (barazki-fruta azalak, esaterako). Gorde ezazu zure poltsa hermetikoan janari liofilizatua, kontserbapoteak, zigarretak, txiskeroak, pilak, aerosolak, bilgarriak, botikak, ukenduak eta abar.

> Ez baduzu dromedarioz bidaiatzen, egizu egoera egokian dagoen ibilgailuan, ahalik eta gutxien kutsatu aldera.

> Ibilaldiak egiterakoan, aukeratu gida profesionalek zuzendutako taldeak, 5-6 eta 10-12 pertsona artekoak. Horrek ingurumenaren gaineko eragina arinduko du eta paisaia bere horretan mantentzen lagunduko du.

KONTUZ OROIGARRIEKIN

> Guztiz debekatuta dago ekipaia historiaurreko objektuak edota bitxikeria geologikoak eroatea.

Indarrean dagoen nazioarteko araudiak gogor eta zorrotz zigortzen ditu balio arkeologikoa duten eremuen espoliazioa, moldeen erauzketa, labarmargoen suntsiketa eta abar. Bestalde, indarrean dauden nazioarteko akordioek zeharo debekatzen dute mehatxatutako eta zaurgarriak diren espezien esportazioa, baita horien jatorriko produktuen ere.

> Ez ahaztu oroigarriak ederrenak ez direla materialak, Saharak eskaintzen dizkigun emozio eta irudiak baizik : bere giza-ondasun eta aberastasun natural amaigabeak, oraindik kontserbatzen den ondare baten parte direnak eta ondorengo belaunaldiak gozatu behar dituztenak.

Gorde zure oroimenean honako atsotitz sahariar hau : « Ondorengoei mundua uzten diet, aurkitu nuen bezala ».

Era askean zabaltzeko dokumentua, beti ere orrialde bakoitzean bere jatorria argi utziz : © Projet Sahara Fragile

Guztiz debekatuta dago testu honen inolako erabilera komertzialik.